

UHARTEKO KIROL-INSTALAZIOETAN KIROL-KUDEAKETAKO ENPRESA PRIBATUEN GREBAK DUEN ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOA

Uhartan, 2022ko urriaren 21a

Urriaren 18tik ez da Uharteko Udalak Urtats enpresarekin kontratatuta duen zerbitzurik ematen ari, ez Spa Sport Itaroaren instalazioetan, ez Ugarrandiakoetan, Nafarroako kirol-zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa eta erakunde pribatuen sektoreko langileentzako greba-deialdiagatik.

Enpresa honek honako hauek kontratatzen ditu: jarduera-monitoreak, sorosleak, ateetako sarrera-kontrola, estetika-zerbitzua, garbiketa eta gimnasioko monitoreak. Beraz, helduen eta haurren jarduera guztiak, alokairuak eta instalazioen erabilera bera ez dira egiten ari. Azken batean, Uharteko biztanleriaren zati handi bati eragiten dio.

Langileen erreklamazioak kontratatzen dituen enpresari egiten dizkieten eskaerak dira, ez zaizkio udalari egiten, eta, beraz, ez dago gure esku grebak irauten duen bitartean zerbitzuak berriro ematea. Udala enpresari eskatzen ari zaio gatazka berehala konpontzeko. **Aldarrikapenetako bat KPlaren igoera dela argitu nahi dugu, eta udalak Urtats enpresarekin duen kontratazio-pleguan jasota dago igoera eta urteko luzapen bakoitzean gauzatzen da.**

Langileen gainerako aldarrikapenak enpresaren eskumenekoak dira: egun bat gehiago norberaren gauzetarako, lanpostu hutsen sistema modu erreal eta eraginkorren hobetzea, eta aldi baterako ezintasunen (bajen) estaldura funtsean hobetzea.

Bestalde, langile orok bere eskubideen alde borrokatzeko eskubidea du, besteak beste, soldata duina eta hitzarmeneko hobekuntzak, eta ezin izango ditu bere lanpostuan ordezkatu grebak irauten duen bitartean.

Udalak greba-deialdiaren berri izan zuen egunean bertan jarri zen harremanetan Urtats enpresarekin, sektoreko patronala eta sindikatuak akordio batera lehenbailehen irits zitezten eskatzeko.

Ulertzen dugu Itaroa eta Ugarrandiako kirol-instalazioetako erabiltzaileen ezinegona eta haserrea, zerbitzu falta horregatik guztiagatik. Hala ere, uste dugu **informazio batzuk ez direla zuzenak eta Udalari egozten zaiola egoeraren errua. Greba dela eta egin ez diren jardueri dagokienez, udalak erabiltzaileentzako konponbideak aztertuko ditu.**

Gaur berriro eskatu zaie patronalaren eta sindikatuen arteko ezberdintasunak lehenbailehen konpontzeko, berehalako konponbidea eskatuz.

Gatazka lehenbailehen konpontzea eta guztiok nahi dugun normaltasunera itzultzea espero dugu.

